



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko irailaren 15a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako errepubleei buruzko 2002tik 2009ra bitarteko II. plan zuzendaria betetzeari buruz eta gobernuak urte politiko berriaren lehenengo bilkuran iragarritako jarduketa berriei buruzkoa. Aralar parlamentu-taldeak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Europar Batasuneko tratatuetan foru lurraldeek zuzeneko zergapetzearen arloan duten zerga autonomia aitortzeko protokolo bat eransteko eska dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Foru Komunitateak web atari modernoa, sartzan erraza, interaktiboa, nabigagarria, ikusmen eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako egokia eta eleanitza izateari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (7. or.).

—Galdera, 2005-2006 ikasturteko beka artistikoen finantzaketari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (8. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak espetxe-arloko eskumenak bereganatzeko eginiko urratsei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (8. or.).

—Galdera, “Programa berekiak” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (9. or.).

- Galdera, Hezkuntza Departamentuak hurrengo urteotan eskola-eraikin berriak eraiki eta orain daudenak eraberritze aldera aurreikusi duen inbertsioari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egin [\(9. or.\)](#).
- Galdera, jakiteko aurreikusita ote dagoen Corellako Alhama BHIIn pabiloi bat eraikitzea. Erretiratutako galdera [\(10. or.\)](#).
- Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegian gertatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna [\(10. or.\)](#).
- Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuak Biblioteca Nueva argitaletxearekin lau liburu argitaratzeko duen akordioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna [\(11. or.\)](#).
- Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara antolatu diren ekitaldi eta kontzertuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna [\(12. or.\)](#).
- Galdera, jakiteko Toki Administrazioako Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz. Foru Diputazioaren erantzuna [\(13. or.\)](#).
- Galdera, “Erresuma baten aroa” izeneko erakusketa bisitatu duen Nafarroako ikastetxe eta unibertsitateetako ikasle kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna [\(14. or.\)](#).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 1/2006 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 6koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena [\(16. or.\)](#).
- 2/2006 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena [\(18. or.\)](#).
- 3/2006 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena [\(22. or.\)](#).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

2003an ondoz ondo eman ziren bi foru legetan onetsitako alargun pentsioetarako gehigarria –geroztik hainbatetan aldatu da– zaharkiturik geratu da.

2003ko foru legeek –horietako lehenbizikoa Nafarroaren laguntza izaerako eta gizarte ongizateko eskumenetan oinarritua, eta bigarrena eduki-etan eta eraginetan lehengoaren antzekoa baina kenkari fiskalaren egitura formala erabiltzen duena– lanbide arteko gutxieneko soldata jartzen zuten muga gisa.

Geroztik egin zen aldaketa batean, muga ezarri zen Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoan (IPREM).

Jurisprudentziak egin duen interpretazioak agerian utzi du adierazle hori, alegia Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa, ez dela nahitaezko erreferentzia, baizik eta hautazkoa.

Horri gehitu behar zaio ekainaren 6ko 9/2005 Legearen onespina –2005eko irailaren 1etik aurrera du indarra–, berekin ekarri baitu alargun askok beren pentsioak handitzea, egun horretatik aurrera beste pentsio batzuk ere bateragarriak baitira.

Aurreko guztiaren ondorioz, oso nabarmena da lege honen xedea den osagarriari dagozkion alarguntasun pentsioak osatzeko neurriaren kostuak izan duen beherakada.

Are nabarmenagoa da aldaketa horien ondorioz onuradun gehienek jasotzen duten pentsio osagarriak % 25 jaitsi dela. 2006an alargun askok

6 euro baino gehixeago egiten duen osagarria jaso dute; hori ikuspuntu ekonomikotik miseria bat da, eta, gainera, berekin ekarri du pertsona horiek bidegabekeriaren sentsazioa izatea –ulertzekoa den moduan, bestalde–.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da berriz ere muga gisa ezartzea lanbide arteko gutxieneko soldata, eta berreskuratzea, hartara, araua sustatzeko hasierako asmoak.

Lehen artikulua. Abenduaren 30eko 22/1.998 Foru Legeko 67. bis artikulua aldatuko da. Testu hau izanen du:

“67 bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alarguntasun pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen badute, kasua bada ekainaren 25eko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarriak barne, eta kontuan hartuta errentan deklaraturiko beste kontzeptu batzuegatik edukitako gainerako dirusarrerak, eskubidea izanen dute aipatu lanbide arteko gutxieneko soldatara arteko osagarri bat jasotzeko.

Alarguntasun pentsioarengatik errentaren gaineko zergaren kenkari gisako osagarria, edonola ere, alarguntasun pentsio horrek indarra duen zergaldian zehar sortuko da.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari kenkari hori alde zuzenetik ordain dezala

eskatzen ahalko zaio. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk egiten.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta behar baino lehenago jasotzeko eskaera egin eta eskuratzekoa ere. Halaber, erregelamendu horretan arautuko da subjektu pasiboaren, hau da, alarguntasun pentsioa jasotzen duenaren, gainerako dirusarrerak zenbatzeko modua.”

Bigarren artikulua. Ebazpen honen ondorio ekonomikoek atzerako eragina izanen dute 2005eko urtarrilaren 1etik.

Hirugarren artikulua. Arau honen ondoriozko betebeharrei aurre egiteko aurrekontu-dirua Nafarroako aurrekontuan dagoena da, Pertsona fisiko-en errentaren gaineko zergari buruzko aitorten ildoetan eta kontusailetan.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio kontseilariari foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontra-koak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkaria Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorio ekonomikoak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako errepideei buruzko 2002tik 2009ra bitarteko II. plan zuzendaria betetzeari buruz eta gobernuak urte politiko berriaren lehenengo bilkuran iragarritako jarduketa berriei buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako errepideei buruzko 2002tik 2009ra bitarteko II. plan zuzendaria betetzeari buruz eta gobernuak urte politiko berriaren lehenengo bilkuran iragarritako jarduketa berriei buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariari, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Nafarroako errepideei buruzko 2002tik 2009ra bitarteko II. plan zuzendaria betetzeari buruz eta gobernuak urte politiko berriaren lehenengo bilkuran iragarritako jarduketa berriei buruz.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko irailaren 5ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Europar Batasuneko tratatuetan foru lurraldeek zuzeneko zergapetzearen arloan duten zerga autonomia aitortzeko protokolo bat eransteko eska dezan.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Europar Batasuneko tratatuetan foru lurraldeek zuzeneko zergapetzearen arloan duten zerga autonomia aitortzeko protokolo bat eransteko eska dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Foru lurraldeen autonomia fiskala ez dago espreski aitorturik Europar Batasuneko itunen testuan; horrek, azken bi hamarkadetan, segurtasun

juridikorik eza sortu du. Europako Erkidegoetarako Auzitegiak joan den irailaren 6an eman duen epaia aurrerapauso bat izan da foru erregimenaren onespeneraren bidean. Hala ere, Europak gure foruak erabat onar ditzan oraindik gauza batzuk ebatzi gabe gelditu dira.

Egoera honen aurrean, Espainiako Gobernuari Europako beste estatu batzuetako gobernuak egin dutena egin dezala eskatu nahi diogu, hau da, bere araubide juridikoetako berezitasun batzuk itunetan sartzea.

Horregatik, gure parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Europar Batasuneko itunetan foru lurraldeek zuzeneko zergapetzearen arloan duten autonomia fiskala aitortzeko protokolo bat eransteko eska dezan.

2. Autonomia hori Europako sistema fiskala koordinatzeko eta bateratzeko prozesuan sartuko da eta prozesu horri egokituko zaio. Era berean, foru erakundeek hartutako neurri fiskal orokorrak Europako Erkidegoko Itunaren 90. artikuluetan eta hurrengoetan jasoko dira.

3. Foru-lurraldeek ECOFINen ordezkari zuzena izan ahalko dute.

Iruñean, 2006ko irailaren 7an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

F saila:
GALDERAK

Galdera, Foru Komunitateak web atari modernoa, sartzan erraza, interaktiboa, nabigagarria, ikusmen eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako egokia eta eleanitza izateari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Foru Komunitateak web atari modernoa, sartzan erraza, interaktiboa, nabigagarria, ikusmen eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako egokia eta eleanitza izateari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun diezaion.

EFE agentziak duela gutxi emandako informazioan ondokoa adierazten da:

“Informazio eta Komunikazioko Teknologia Zentroak egindako azterlan baten arabera, Nafarroako Gobernuaren web orriak jasotako balorazioa “txarra” da. Azterlan horren arabera, Nafarroa-

ko Gobernuaren web orriak Interneten ibiltzea oztokatzen duten osagai batzuk ditu; izan ere, letraren tamaina ezin da aldatu, ez du sartzan errazteari buruzko inolako informaziorik ematen eta ez du java script –tresna hori gabe zaila baita atarian barna nabigatzea–. Azterlanaren beste ondorioetako bat da erkidegoetako gobernu gehienek ez dutela beren Interneteko atarietan sartu, ikusmen urritasuna duten pertsonen web edukiak eskuragarri jartzeari begira, Europako eta Espainiako legeak betetzeko beharrezkoak diren irizpideak.”

Horretaz gain, web orriak elebakarrean segitzen du, nahiz eta 2006ko udarako atari eleanitza izanen genuela behin eta berriro iragarri den; beraz, euskararen legeak babestutako Nafarroako euskaldunen hizkuntza eskubideak kontuan izan gabe segitzen du.

Hori dela-eta, galdera hau aurkeztu dugu:

Noiz izanen du Foru Komunitateak web atari moderno bat, sartzeko erraza, interaktiboa, nabigagarria, ikusmen eta entzumen urritasuna duten pertsonentzako egokia, eleanitza, eta azken batean, Internetek eskaintzen duen informazioa herri-tar guztien eskura jarriko duena?

Iruñean, 2006ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, 2005-2006 ikasturteko beka artistikoen finantzaketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea 2005-2006 ikasturteko beka artistikoen finantzaketari buruz foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo kontseilariak ahoz erantzun dezan Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran.

Kultura eta Turismo Departamentuak erabaki zuen estatuko eta atzerriko ikastetxeetan arte-ikasketak sakontzeko ematen zituen beka ken-

tzea. Komunikabideek agertzera eman dute arte plastikoa, musika, dantza, zinema eta abar ikasten ari diren nafar asko zein egoera kaxkarrean egonen diren beste ikastetxe batzuetan arte-ikasketetan sakondu ahal izateko.

Informazio horrek berehalako erantzuna jaso zuen herritarrengandik; hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Kultura eta Turismo kontseilariak esandakoa guztiz zuzendu zuen; egoera konpontzeko, kontseilariaren hitzak gezurtatu zituen, eta, lehendakariaren hitzetan, beka abian jartzeko agindua eman zuen. Hona hemen lehendakariaren adierazpenak: "Gaur goizean bertan beka abian jartzeko agindua eman dut"

2005-2006 ikasturtean ez dago beka artistikoe-tarako kontusailik; hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak lehendakariak emandako agindua betetzeko, nola lortu behar du Kultura eta Turismo kontseilariak artista gazteentzako beka abian jartzeko beharrezkoa den dirua?

Iruñean, 2006ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Nafarroako Gobernuak espetxe-arloko eskumenak bereganatzeko eginiko urratsei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Gobernuak espetxe-arloko eskumenak bereganatzeko eginiko urratsei buruz foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko parlamentari José Miguel Nuin Morenok, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuak eleduak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak eledu Alberto Catalán jaunak, joan den abuztuaren 28an, honakoa esan zuen: "Espainiako gobernuak ez bada gauza Nafa-

roako espetxe berria eraikitzeko, Nafarroak ez du inolako arazorik espetxe-arloko eskumena bere gain hartzeko”

Nafarroako Gobernuaren jarrera politikoa espetxe-arloko eskumenak bereganatzea baldin bada, zein urrats eman ditu orain arte Nafarroako Gober-

nuak gobernu zentralaren aurrean transferentzia hori gauzatzeko?

Zer gestio edo ekimen egiteko asmoa du etorkizunean?

Iruñean, 2006ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, “Programa berekiak” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, “Programa berekiak” izeneko kontusailaren kreditua handitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Kultura eta Turismo Departamentuak eskatu berri du “Programa berekiak” izeneko kontusailean 250.000 euroko kreditu gehikuntza egitea.

Kreditua gehitzeko eskaera horren zioa omen da aipatu kontusailean ez dagoela kreditu nahikorik Kultur Ekintza Zerbitzuak 2006. urterako aurreikusita dituen programak gauzatzeko.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer aldaketa egin dira edo zein programa berri jarri ditu abian Kultura Departamentuak 250.000 euroko kreditu gehikuntza behar izateko?

Iruñean, 2006ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Hezkuntza Departamentuak hurrengo urteotan eskola-eraikin berriak eraiki eta orain daudenak eraberritze aldera aurreikusi duen inbertsioari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuak hurrengo urteotan eskola-eraikin berriak eraiki eta orain daudenak eraberritze

aldera aurreikusi duen inbertsioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer inbertsio egiteko asmoa du Hezkuntza Departamentuak datozen urteetan eskola eraikin

berriak eraikitzeko eta orain daudenak eraberritzeko?

Zer inbertsio egin ditu departamentuak eskola eraikinetan 2000-2001 ikasturteaz geroztik?

Iruñean, 2006ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Galdera, jakiteko aurreikusita ote dagoen Corellako Alhama BHIIn pabiloi bat eraikitzea.

ERRETIRATUTAKO GALDERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak eginiko galdera, jakiteko aurreikusita ote dagoen Corellako Alhama BHIIn pabiloi bat eraikitzea, erretiratutzat jotzea. Galdera hori 2006ko

ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko irailaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroako Administrazio Auzitegian gertatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako Administrazio Auzitegian gertatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

tatzen diren atzerapenei eta hartu beharreko neurriei" buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdegileari jadanik adierazi zaion bezala, errealitatea etengabe ari gara behatzen, ebazpenboren zergatiak identifikatzeko.

Gaur den egunean ez dago asmorik Nafarroako Administrazio Auzitegiari trafiko-arloko errekurtsioen ebazpenean laguntzeko legelariak atxikitzeko.

Gaur den egunean ez dago asmorik Administrazio Auzitegiaren Idazkaritzako administrarien kopurua handitzeko, eta, lehen ere adierazi bezala, berriki finkatu dira auzitegi horri esleituriko postuak, haien titularrek lekualdatze-lehiaketaren bitartez bete baitituzte.

Gaur den egunean ez dago asmorik Nafarroako Administrazio Auzitegian berariazko kalitate-

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du "Nafarroako Administrazio Auzitegian ger-

kontrolerako jardunbide bat ezartzeko; dena den, galdegileak dakien bezala, Nafarroako Gobernuak apustu tinkoa egin du zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluaziorako kultura bat ezartzearen alde, eta horretarako Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Lege berri eta aitzindariaren onespena, duela gutxikoa, sustatu du. 2006ko ekainaren 8an, Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko Foru Batzordea eratu du; aipaturiko foru legeak batzorde horri esleitzen dizkio zerbitzu publikoen kanpo ebaluazioa egitea eta autoebaluazio-metodoak homolo-

gatzeko eskumena. Asmoa da araudi horretan ezarritako irizpideen garapenean eta aplikazioan aurrera egiten jarraitzea, bai eta unitate bakoitzean kalitatearen ebaluazioko kultura hori pixkanaka ezartzen joatea ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 29an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuak Biblioteca Nueva argitaletxearekin lau liburu argitaratzeko duen akordioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Kultura eta Turismo Departamentuak Biblioteca Nueva argitaletxearekin lau liburu argitaratzeko duen akordioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak besteekin batera argitaratutako lan batzuekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Galderak lau lan aipatzen ditu; honako hauek, hain zuzen ere:

Tramas de identidad. Literatura y regionalismo en Navarra (1870–1960), Iñaki Iriarte López, Madril, 2000.

Navarra y el nacionalismo vasco. Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino, José Manuel Azcona Pastor eta Joaquín Gortari Unanua. Madril, 2001.

Navarra como problema. Nación y nacionalismo en Navarra, Miguel Izu Belloso, Madril, 2001.

Perversiones políticas del Lenguaje, Víctor Manuel Arbeloa, Madril, 2004.

Horiei buruz, adierazi behar dut Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundeak ez duela koedizioak sustatzeko inolako akordio orokorrik ez Madrilgo Biblioteca Nueva argitaletxearekin ez beste ezeinekin ere; izan ere, Nafarroako Kultura Kontseiluko Argitalpenen Batzordeak, zenbait argitaletxe aurkezturiko proiektuak ikusirik, kasu bakoitzean erabakitzen du bidezkoa den ala ez den Nafarroarekin zerikusia duten ikerlanak edo berri emateko lanak koedizioan argitaratzea, baldin eta ez badute tokirik Kultura eta Turismo Departamentuak berak argitaratutako bildumetan.

Horixe izan da goian aipaturiko koedizioen kasua, bai eta beste batzuekin batera argitaratutakoena ere, hala nola Sabino Arana Kultur Elkaragoa, Iberduero, Ocho y medio—Libros de cine, Ediciones B, Anthropos argitaletxea, La Olmeda argitaletxea, Nafarroako Kutxa, Nafarroako Unibertsitatea edo Iruñeko Artzapezpikutzak, besteak beste.

Kasu guztietan, eta argitaletxeen esparruan jokabide arrunta denez, Argitalpen Batzordeak aintzat hartzen ditu egilearen gaitasuna, argitaratu beharreko lanaren seriotasuna eta titulu berria argitaletxe eskatzailearen bildumetan sartu ahal izateko aukera, halako moldez non lanaren heda-

pena bermatzen den, lan hori liburudendetan jadanik errotua dagoen katalogo batean sartzen baita.

Halaber, galderak Nafarroako argitaletxeekiko koedizioak aipagai ditu.

Aipatu dugun bezala, argitaletxeak dira euren kasa Kultura eta Turismo Departamentua-Vianako Printzea Erakundeari zuzentzen zaizkionak; hori horrela, kasu batzuetan egoitza Nafarroan daukaten enpresak dira, eta beste batzuetan, ordea, ez. Alabaina, kasu guztietan Nafarroan egiten dira

aurreinprimaketa lanak, inprimaketakoak eta azaleztapenekoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 21ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara antolatu diren ekitaldi eta kontzertuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara antolatu diren ekitaldi eta kontzertuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizunarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren bosgarren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak antolatzeko izendatu zuen Batzordeak erabaki du ospakizunak erkidegoko zenbait herrietara bai eta interes bereziki jotzen ziren erkidegoz kanpoko herrietara ere hedatzea. Hori dela eta, Xabiartik kanpo gauzatu dira hasiera batean beste toki batzuetarako aurreikusiak zeuden zenbait ekitaldi, bai eta, jarraian azaldutako arrazoiengatik komenigarritzat jo delako, toki horietara leku aldatu ziren beste batzuk ere.

Hauexek dira aipaturiko programak:

– Apirilaren 28ko kontzertua

Beethovenen Bederatzigarren Sinfonia

Interpretatzaileak: Pablo Sarasate kontserbatorio-
rioko orkestra eta Kawaguchiko abesbatza.

Aurrekontua: 10.200 euro.

Kontzertu hori Erriberriko frantziskotarren elizan izan zen, eta ez Xabierko Frantzisko Jatsukoaren Aretoan, honako bi arrazoi hauengatik: lehenengo arrazoia da Yamaguchiko abesbatzak kontzerturako aukeratutako programa maiatzaren 21ean eman zuen kontzertuko programa bera dela; bigarren arrazoia da hala Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrenako antolatzaileek nola Erriberriko Udalak kontzertua herri horretan emateko azaldu zuten interesa.

– "Mundutik Xabierrera" abesbatzen astea.
Ekainaren 12tik 18ra bitarte

Aurrekontua: 25.800 euro.

Interpretatzaileak:

University of Utah Singers (Salt Lake City)

Victoria Kamarakorus (Budapest)

Osloko Schola Cantorum

Cantemus Cantorum (Nyiegyhaza)

Xabier inguruko udalek, bai eta Etxarri-Aranatz eta Tuterakoek ere, agerturiko interesa eta eginiko eskaerak aintzat harturik, abesbatza-ziklo hau, hasiera batean Frantzisko Jatsukoaren Aretorako pentsatua, honela programatu zen:

• Ekainak 12 - University of Utah Singers - Tutera

- Ekainak 13 – Cantemus Cantorum - Kaseda
- Ekainak 15 - Schola Cantorum - Aibar
- Ekainak 16 - Victoria Kamarakorus - Esa
- Ekainak 18 - Victoria Kamarakorus – Etxarri-Aranatz

Erkidego osoan San Frantzisko Xabierkoaren V. Mendeurrenak sorturiko interesa dela-eta, programa hauek, mendeurrena ospatzeko gainerako-

ek bezalaxe, jende ugari bildu dute antolatu diren herrietan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 21ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak ondoko galdera egin zuen: "jakiteko Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz?"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 23ko 62. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du jakiteko Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren gaineko legezketasun kontrola egin ote duen Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenaren ondorioz. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna:

1.- Uneren batean egin al du Toki Administrazioiko Departamentuak Garesko Udalaren jardueren gaineko legezketasun kontrola?

Toki Administrazioiko Departamentuaren eginkizuna da Nafarroako toki entitateen gaineko kontrol arrunta egitea, eta, beraz, kontrol hori Garesko Udalaren gainean egiten du, hain zuzen ere gainerako toki entitateen gaineko kontrola egiten duen legezko modu berean.

2.- Aurreikusia al du edo beharrezkotzat jotzen al du udal horren jardueren gaineko legezketasun kontrolen bat egitea?

Ulertu behar da, galderari erantsitako arrazoi-tzearengatik, parlamentari jaun hori Comptos Ganberaren fiskalizazio txostenari buruz ari dela. Ildo horretan, legezketasun-kontrolaren ikuspegitik, txosten horretan aipatzen diren aferak eta legezketasun-gomendioak beste ezer ez litzateke interesekoa izanen.

Horrela ere gertatzen da garai berean Comptos Ganberak txostena egin dien beste toki entitate batzuek, adibidez, Monteagudoko Udalak, kasuko gomendioak jasotzen dituztenean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuan

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “Erresuma baten aroa” izeneko erakusketa bisitatu duen Nafarroako ikastetxe eta unibertsitateetako ikasle kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “Erresuma baten aroa” izeneko erakusketa bisitatu duen Nafarroako ikastetxe eta unibertsitateetako ikasle kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko ekainaren 30eko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “Erresuma baten aroa” erakusketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“Erresuma baten aroa. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzak” izeneko erakusketa, 2006ko urtarrilaren 26an Baluartean inauguratua, maiatzaren 2an itxi zen, eta eragin handia izan zuen, bai herritarren artean, baita zientzialarien artean ere.

Bestetik, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan abiarazitako ikasle-bisiten programa zela medio, 5.000 ikasle baino gehiago bertaratu ziren erakusketara.

Honakoak dira propio jarri zen telefonoa erabiliz bisita hitzartua eskatu zuten ikastetxe eta institutuak:

Ursulinen ikastetxea, Salestarren ikastetxea, Faltzesko ikastetxea, Miravalles ikastetxea, Zarrakazteluko BHI, María Inmaculada ikastetxea, Martzillako BHI, Iturrama BHI, Compañía de María Tudela ikastetxea, Luis Amigó ikastetxea, Santa Luisa de Marillac ikastetxea, Tuterako Jesuiten ikastetxea, San Ignacio ikastetxea, Víctor Pradera ikastetxea, Mendillorri ikastetxea, Maristen ikastetxea, San Francisco ikastetxea, Navarro Villoslada ikastetxea, Esclavas Sagrado Corazón ikastetxea, San Ignacio ikastetxea, Hilarión Eslava ikastetxea, Caro Baroja ikastetxea, Domingotarren ikastetxea, Karmeldarren ikastetxea, San Fermin ikastola, Lekunberriko

ikastola, Eskolapioak, Iruña, Tafallako Eskolapioak, Atarrabiako Domingotarren ikastetxea, Ermitagaña ikastetxea, Vázquez Mella ikastetxea, Iruñeko Jesuitinen ikastetxea, Tuterako Jesuitinen ikastetxea, Larraona ikastetxea, San Cernin ikastetxea, Nuestra Señora del Huerto ikastetxea, Puente La Reina ikastetxe publikoa, Teresatarren ikastetxea, Hijas de Jesús ikastetxea, Azpilagaña ikastetxe publikoa, María Inmaculada ikastetxea, Barañaingo Alaiz institutua, La Granja institutua, Plaza de la Cruz institutua, Torre Basoco institutua. Padre Moret Irubide institutua, Navarro Villoslada institutua, Vianako BHI, Benjamín de Tudela institutua, Zangozako Sierra de Leire institutua, Tuterako Valle Ebro institutua, Corellako Alhama institutua eta San Adriango institutua.

Ikastetxe gehienek ikasgela bat baino gehiagoko haurrak eraman zituzten, eta taldeetan. Taldeetako ikasle-kopurua askotarikoa da. Ikastetxe horiei gehitu behar zaizkie erakusketara euren kasa joan ziren ikastetxe eta institutuak, alegia, haien izaeraren berri eman gabe bertaratu zirenak.

Hori guztia dela-eta, erakusketara bisitan joan zen ikasle-talde bakoitzeko eskola-maila zehatza ez dakigu xehetasunez, askotarikoa izan baitzen eta, betiere, ikastetxe bakoitzeko irakasleek erabakitakoa.

Unibertsitate-esparruari dagokionez, erakusketak mundu osoko katedradun eta espezialista ugariren interesa piztu zuen. Espainiako unibertsitateez denaz bezainbatean, erakusketa bisitatu zuten unibertsitate hauetako zenbait katedradunek: Comillas, Rey Juan Carlos, Euskal Herrikoa, Kantabriakoa, Madrilgo Complutense, Madrilgo Autónoma, Bartzelonako Central, Lleidakoa, Tarragonako Rovira i Virgili, Valentziakoa, Murtziakoa, Leóngo, Salamancakoa, Burgoskoa, Valladolidekoa, Errioxakoa, Oviedokoa edo Santiagokoa. Nazioartetik, honako unibertsitateetako espezialistak etorri ziren: New Yorkeko Columbia, Cornell, Erromako La Sapienza, Sorbonne, Nanterrekoa, Rennesekoa eta Tokiokoa.

Erakusketara joan ziren unibertsitate-ikasle-en kopuruari dagokionez, ez dago daturik ematerik; besteak beste, ikasle horiek zein bere kasa

joan ohi direlako, beren izaeraren berri eman gabe.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abuztuaren 21ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2006 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 6koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 1/2006 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 6koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikulua, erabaki da:

1. 1/2006 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 6koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eza gutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1/2006 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 6koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 32. artikuluan xedaturikoarekin bat, Foru Komunitateari dagozkion balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, unean- unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, fun- tsezko arau eta arau formal berak aplikatuko ditu Nafarroak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adierazpen egin eta dirua pagatzeko ereduak

onesten ahalko ditu. Eredu horiek, gutxienez ere, araubide arrunteko lurraldeko datu berak edukiko dituzte eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak adieraziko dituzte, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik sobera bereiziko ez direnak.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, araubide arrunteko lurraldeko tributu araubidearen aldaketa batek unean- unean Estatuan indarra duten fun- tsezko arau eta formal berak Foru Komunitatean ezartzera behartzen duenean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela.

Estatuko 2006ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 30/2005 Legeak bi aldaketa ekarri ditu araubide komuneke balio erantsiaren gaineko zerga arautzen duen Legean. Lehenik eta behin, irrati eta telebista digitaleko zerbitzuak emateagatik karga-tasen 100eko 7ko tasa murriztua aplikatzeko kasu berri bat sartu denez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 37. artikulua aldatu behar da. Gainera, etxebizitzaren errentamenduen gaineko zerga-salbuespenaren aplikazio eremua zabaldu egin da eta bertan sartzen dira etxebizitzaren laguntzarako programa publikoen entitate kudeatzaileek edo etxebizitzaren errentamenduan diharduten entitateen araubide bereziari, Sozietateen gaineko zergan ezarritakoari, loturiko sozietateek ondorengo errentamendua egiten duten kasuak; horregatik aldatu behar da aipatu 19/1992 Foru Legearen 17. artikulua.

Beharrezkoa da, bestalde, Foru Komunitateko balio erantsiaren gaineko zergaren zehapen araubidea zerga horrek araubide komunean duen egungo araudiarekin harmonizatzea, kontuan hartuz Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000

Foru Lege Orokorrean arau-hausteen eta zehapenen arloan ezarritako erregulazioa. Harmonizazio horrek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 115. eta 116. artikulua, arau-hausteei eta zehapenei buruzkoak, hurrenez hurren, aldatzea eskatzen du.

Hori dela-eta, beharrezkoa da, esan bezala Parlamentuak esku utzirik, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu baten bidez, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 54. artikuluko 1. idatz-zatiarekin bat.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide arrunteko arauen ondorioekin bat etor daitezzen.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2005eko otsailaren 6ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen artikulua hauek aldatu dira, ondoren azaldu bezala:

Bat. 17.1.13. artikuluko b) letra.

“b) Etxebizitzetarako bakarrik diren eraikinak edo eraikinen zatiak edo etxebizitzaren laguntzarako programa publikoen entitate kudeatzaileek edo etxebizitzaren errentamenduan diharduten entitateen araubide bereziari, Sozietateen gaineko zergan ezarritakoari, loturiko sozietateek ondorengo errentamenduan jartzeko direnak. Zerga-salbu-espina etxebizitzekin eta altzariekin batera errentan jarritako garaje eta eranskinetara hedatuko da.

Zerga-salbu-espenean ez dira ondorengo hauek sartuko:

a') Lursailen errentamendua, ibilgailuen aparkalekurako.

b') Lursailen errentamendua, ondasunak, salgaiak edo produktuak gorde edo biltegitzeko, edo horietan enpresa-jarduera bateko elementuak instalatzeko.

c') Lursailen errentamendua, erakusketak edo publizitatea jartzeko.

d') Errentamenduak, lursailak edo etxebizitzak erosteko aukerarekin, horiek ematea zergari lotua eta zerga-salbu-espenean gabea izanik.

e') Altzariz hornitutako etxebizitza edo apartamentuen errentamendua, errentatzailea beharturik dagoenean ostalaritza industriari dagozkion zerbitzu osagarrietakoren bat ematera, hala nola, jate-txea, garbiketara, arropa garbiketara edo antzekoak.

f') Eraikinen edo horien parte batzuen errentamenduak, besteren bati errentan ematekoak, aurreko b) letran ezarritakoari jarraikiz eginikoak izan ezik.

g') Hiri Errentamenduei buruzko Legearen xedapenekin bat etxebizitzekin parekatutako eraikinen edo horien parte batzuen errentamenduak.

h') Aurreko a'), b'), c'), e') eta f') letretan aipatu ondasunen gaineko erabilera edo gozameneko eskubide errealean eraketa edo eskualdaketa.

i') Azaleraren gaineko eskubide errealean eraketa edo eskualdaketa.”

Bi. 37. artikuluko Bat. 2. puntuari beste idatz-zati bat (16.a) gehitzea.

“16. Irrati digitaleko eta telebista digitaleko zerbitzuak hornitzea eta hartzea. Kontzeptu honetatik baztertzen dira transmisioko azpiegituren ustiaketa eta helburu horretarako behar diren komunikabide elektronikoen zerbitzuak ematea.”

Hiru. 115. artikulua.

“115. artikulua. Arau-haustekak.

1. Titulu honetan aurreikusirik xedapen bereziak galarazi gabe, zerga honi buruzko arau-haustekak Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta aplikatzekoak diren gainerako arau orokorretan xedatutakoaren arabera kalifikatuko dira eta zehatuko.

2. Tributuen arloko arau-hauste larriak izanen dira:

1. Baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziaren menpe dauden subjektu pasiboek ondasunak erosterakoan, behar diren fakturretan espreski ez paratzea baliokidetasun-errekargua, salbu eta erosleak horren berri ematen badio Administrazioari, erregelamenduak ezarritako moduan.

2. Ekintza edo omisio erruzko edo dolozkoaren bidez Zergaren jasanarazpen okerra lortzea, betiere horren hartzaileak eskubiderik ez badu jasadako kuoten kenkari osoa egiteko.

Subjektu arau-hausleak izanen dira aipatu eragiketaren hartzaile diren pertsonak edo entitateak,

baldin eta aurreko lerroaldeak aipatutako ekintza-
ren edo omisioaren erantzule badira.

3. Epearen barrenean sartu ez diren zerga-
kuotak fakturan bidegabeki jasalaraztea, Zergaren
subjektu pasibo ez diren pertsonen kontura.

4. Behar den epean aurkeztu beharreko autoli-
kidazioan, eragiketen hartzailea den subjektu pasi-
boaren zenbatekoak ez paratzea, Foru Lege
honen 31.1. artikuluan 2., 3. eta 4. idatz-zatietan,
32. artikuluan edo 85. quinquies artikuluan ezarri-
takoari jarraikiz.”

Lau. 116. artikulua.

“116. Zehapenak.

1. Aurreko artikuluan ezarritako arau-haustek
honela zehatuko dira:

1. 2. zenbakiko 1. idatz-zatian ezarritakoak diru-
isun proportzionala jarritz, jasalarazi beharko litza-
tekeen baliokidetasun-errekarguaren ehuneko
50ekoa, gutxienez 30 euro baliokidetasun-errekar-
gua behar den bezala jasalarazi gabe egindako
erosketa bakoitzeko.

2. 2. zenbakiko 2. idatz-zatian ezarritakoak
diru-isun proportzionala jarritz, bidegabeki lortutako
mozkinaren ehuneko 50ekoa.

3. 2. zenbakiko 3. idatz-zatian ezarritakoak
diru-isun proportzionala jarritz, bidegabeki jasala-
razitako kuoten ehuneko 100ekoa, gutxienez 300
euro araua hautsiz ordezkaturako faktura edo
dokumentu bakoitzeko.

4. 2. zenbakiko 4. idatz-zatian ezarritakoak
diru-isun proportzionala jarritz, autolikidazioan
azaldu gabe utzitako eragiketei dagokien kuotaren
ehuneko 10ekoa.

2. Foru lege honen arabera ezartzen diren diru
bidezko zehapenei Tributuei buruzko Lege Oroko-
rreko 71. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen dena
murriztuko zaie.

3. Zerga mozkinak eskuratzeko eskubidearen
galera dakarren zehapena ez da aplikatuko Balio
Erantsiaren gaineko Zerga arautzeari buruzko foru
lege honek eta gainerako arauak ezarritako salbu-
espenetan.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako
foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean
argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Hala ere, legegintzako foru dekretu honen arti-
kulu bakarreko Bat eta Bi idatz-zatietan xedatuta-
koak eragina izanen du 2006ko urtarrilaren 1etik
aitzina.

2/2006 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 2koa, Tributu Harmoni- zazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko aben- duaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko
irailaren 11n egindako bilkuran, hurrengo eraba-
kia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2006 Legegintzako Foru Dekretua,
maiatzaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruz-
koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko
abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen
duena eta kontuan harturik Nafarroako Gobernu-
ari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legea-
ren 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko
Erregelamenduaren 158. artikulua, erabaki da:

1. 2/2006 Legegintzako Foru Dekretua, maia-
tzaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa,
Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko aben-
duaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen
duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

2/2006 Legegintzako Foru Dekretua, maiatzaren 2koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 32. artikuluan xedaturikoarekin bat, Foru Komunitateari dagozkion balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, unean- unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatuko ditu Nafarroak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onetsi ahal izanen ditu. Eredu horiek, gutxienez ere, araubide arrunteko lurraldeko datu berak edukiko dituzte eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak adieraziko dituzte, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik sobera bereiziko ez direnak.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, araubide arrunteko lurraldeko tributu araubidearen aldaketa batek unean-unean Estatuan indarra duten eta funts eta formaz berdinak diren arauak Foru Komunitatean ezartzera behartzen duenean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak eman ahal izanen dituela.

5/1998 Foru Dekretuak, urtarrilaren 19koak, aldaketak egin zituen, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 48., 50. eta 52. artikuluetan. Aldaketa horien ondorioz, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera, zerga honen zerga-oinarriaren osagai ez ziren dirulaguntzak eskuratzekoak kenkari eskubidea mugatzen zien enpresaburu edo profesionaleri. Europar Batasuneko Auzitegiak, 2005eko urriaren 6ko Epaiari, C-204/03 aferari Batzordea Espainiako Erreinuaren aurka emandakoan, erabaki du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 102., 104. eta 106. artikuluetan, 66/1997 Legeak aldatutako bertsioan zehazki, jasotako ezarpenak ez zetozeela bat Seigarren Zuzentarauarekin, eta horrek ekarri du 37/1992 Legea aldatu beharra, eta halaxe egin da martxoaren 29ko 3/2006 Legearen bidez. Nafarroako Foru Komunitateak, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoaren arabera, aldatu egin behar ditu

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen horri buruzko aginduak, foru lege horren 48., 50. eta 52. artikulua alegia. Epaiari adierazten denez, eragiketen prezioari lotuak ez diren dirulaguntzak hainbana-koaren izendatzailean sartu ahal izateko, halakoak jasotzen dituzten enpresaburu edo profesionalen kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketan eta eskubide hori sortzen ez duten beste eragiketa batzuetan aplikatzera beharturik egon behar dute. Hori da, Seigarren Zuzentarauaren 19. artikulua- ren arabera, betiere Justizia Auzitegiak interpreta- tzen duenez, kide diren Estatuak duten ahalmena.

Goikoa gorabehera, ez da arrazoizkotzat har- tzen murrizketa horri formulatu den bezalaxe eus- tea. Aitzitik, hobetzat jotzen da eragiketen prezioari loturik ez dauden dirulaguntzak eskuratu izanaren ondoriozko kenkari eskubidearen murrizketa guzti- ak ezeztatzea, horrela saihesten baita kenkari eskubidea murrizten duten eragiketak gauzatzeko ondorioz ekartzea eskubide horren murrizketa gehiegizkoa, dirulaguntza horiek hainbana-koaren izendatzailean sartzean, horrelako eragiketarik ez denean halakorik sartzerik ez baldin badago.

Aldaketa horiek gauzatzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 48., 50. eta 52. artikulua aldatzen dira. Halaber, eta foru lege horren beste agindu batzuei koherentzia emateko, foru lege honen 17.2 eta 58.2 artikulua aldatzen dira.

Bestalde, martxoaren 29ko 4/2006 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 130. artiku- lua aldatzen du. Bertan arautzen dira oroharreko zenbatekoz konpentsatzeko portzentajeak, zeinak eskuratzeko eskubidea baitute Balio Erantsiaren gaineko Zergako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide berezia aplikatzen ahal zaien ustategien jabe diren enpresaburuek. Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateak, Hitzar- men Ekonomikoarekin bat, Balio Erantsiaren gai- neko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 75. artikulua aldatzera doa.

Azkenik, apirilaren 24ko 6/2006 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatzen du, minusbalotasu- nak dituzten pertsonak garraiatzeko ibilgailuaren kontzeptua argitzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa oso gutxitua aplikatuko baitaio. Horrenbestez, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako- ari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateak aldatu beharra dauka Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea- ren 37. artikulua, zergaren tasa gutxituei buruzkoa, ezgaitasunak dituzten pertsonak garraiatzeko ibil-

gailuen kontzeptuari sarrera emateko, tasa oso gutxitua aplikatuko baitzaio.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2006ko maiatzaren 10eko bilkuran hartutako Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen artikulua hauek aldatu dira, eta honela geldituko dira idatzirik hemendik aurrera:

Bat. 17.2. artikulua.

“2. Subjektu pasiboak bere esku du aurreko zenbakiko 10., 11. eta 12. idatz-zatiei buruzko salbuespenei uko egitea, erregelamenduz ezartzen den moduan eta beharkizunak betez betiere, baldin eta eskuratzaila bere enpresa edo lanbide jardueretan diharduen subjektu pasiboa bada eta, haien xede ohikoaren arabera, eskurapen horien gainetik jasandako zergaren kenkari osoa izateko eskubidea badu.

“Erosleak kenkari osoa egiteko eskubidea duela ulertuko da Zerga jasan behar den urtean behin-behinekoz aplikatu beharreko kenkarien portzentajeak kenkari oso-osoan egiteko aukera ematen duenean, are enpresa edo lanbide jardueri dagozkien ondasun-emate edo zerbitzu-emateak egin aurretik jasandako kuoten kasuan ere”

Bi. 37. artikulua. Bi. 1. 4garrena eta 2.

“4garrena. Mugikortasuna murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen I. eranskinen 20. zenbakiak aipatzen dituenak, abenduaren 23ko 2822/1998 Ibilgailuei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen 2822/1998 Errege Dekretuak II. eranskinen emandako idazketaren arabera, eta minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako baizik ez diren aulki gurgildunak.

Aulki gurgildunean minusbaliatuak garraiatzeko autotaxi edo autoturismo gisa erabiltzekoak diren ibilgailuak, dela zuzenean, dela aldez aurretik egokiturik edo gabe, hala nola ibilgailu motordunak, aldez aurretik egokiturik edo gabe, mugigarritasun murriztua duten edo aulki gurgildunean ibili beharra duten minusbaliatuak garraiatzen ibiltzeko direnak, kontuan izan gabe haien gidaria nor den.

Aurreko lerroaldean sartzen diren ibilgailuei zerga-tasa gutxitua aplikatuz gero, eroslearen eskubidea aldez aurretik onartua izan behar da, eta ibilgailua zertarako den frogatu beharko du.

Foru lege honen ondorioetarako, %33 edo gehiagoko ezintasuneko minusbaliotasuna dutenak hartuko dira pertsona minusbaliatutzat. Minusbaliotasun maila frogatzeko, Foru Komunitateko gizarte ongizateko zerbitzuek luzatutako ziurtagiri edo ebazpena beharko da, edo bestela Migrazio eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo erkidego autonomoetako organo eskudunek luzatutakoak.”

“2. Bigarren idatz-zati honetako 1.4garrena zenbakiko lehen lerroaldean sartutako ibilgailuen eta aulki gurgildunen konponketa-zerbitzuak eta minusbaliatuentzako autotaxi eta autoturismoak eta agindu horrexen bigarren lerroaldeak aipatzen dituen ibilgailuak egokitzeko zerbitzuak, haien gidaria nor den kontuan hartu gabe.”

Hiru. 48.1 artikulua.

“1. Subjektu pasiboak bere enpresa edo lanbide jardunean kenkari eskubidea sortzen duten ondasun edo zerbitzu ematez gain kenkari eskubiderik sortzen ez duten antzeko eragiketak egiten dituen izanen da aplikagarri hainbanaketa-araia.”

Lau. 50. artikulua 2.2garrena.

“2garrena. Izendatzailean, subjektu pasiboak bere enpresa edo lanbide jardunean egindako ondasun edo zerbitzu emateen guztizko zenbatekoa, epe bererako finkatua, edo, hala bada, dagoen sektore bereizian egindakoak, kenkari eskubiderik sorrarazten ez dutenak barne.

Dibisa-lagatzeen, banku-billeteen eta txanponen bidez egindako eragiketetan, zerga odaintzetik salbuesitako legezko ordainbideak direnean, izendatzailean jartzeko zenbatekoa ordainbide horien birsalmentaren kontraprestazioarena izanen da, eta hari gehituko zaio, halakorik bada, jasotako komisiorea eta kenduko zaio haien eskurapenprezioari dagokiona edo, zehazterik baldin bada, data berean eskuratuako dibisen, billeteen edo izaera bereko txanponena.

Ordaindukoen eta finantza-entitateen karteran sartuak ez diren baloreen eragiketetan, izendatzailean jartzeko zenbatekoa efektu horien birsalmentaren kontraprestazioarena izanen da, eta gehituko zaio, halakorik bada, interes eta komisio eskagarriena eta kenduko zaio haien erosketa-prezioarena.

Finantza-entitateen karteran sartuak diren baloreen kasuan hainbanakoaren izendatzailean dagoen epeko interes eskagarria jarriko da eta

balore horien eskualdakentzen kasuan, eskuratutako plusbalioena.

Aurreko irizpideak aplikatzeak ematen duen kenkari-hainbanakoa goiko unitatera biribilduko da.”

Bost. 52.1. artikulua.

“1. Kenkari eskubidea hainbanako berezian gauzatzeko, honako arau hauei men egin beharko zaie:

1. Kenkari eskubidea sortzen duten eragiketetan soilik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskurapen edo inportazioan jasandako zerga-kuotetan kenkari osoa egin ahal izanen da.

2. Kenkari eskubidea sortzen ez duten eragiketetan soilik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskurapen edo inportazioan jasandako zerga-kuotetan ezin da kenkaririk egin.

3. Kenkari eskubidea sortzen duten eragiketetan hein batez bakarrik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskurapen edo inportazioan jasandako zerga-kuotetan hein bateko kenkaria egin ahal izanen da. Horretarako 50. artikuluko 2. zenbakian eta hurrengoetan aipatzen den protzentajea aplikatuko zaio guztizko zenbatekoari, eta proportzio horretakoa izanen da kenkaria.

Portzentaje hori aplikatzeko, foru lege honetako 51. artikuluan ezarritako prozedura-arauei atxikiko zaie.”

Sei. 58.2 artikulua.

“2. Aurreko zenbakian aipatzen den behin betiko portzentajea foru lege honen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da, eta horretarako zenbaki horrek aipatzen duen epean egindako eragiketak batera hartuko dira.”

Zazpi. 61. artikulua, 1 zenbakia eta 3. zenbaki-ko lehen lerroaldea.

“1. Foru lege honen 45. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera likidazio-epealdian sortutako kenkariak (haien kopuruak etengabe gainditzten dituztelako sorrarazitako kuotak) egiterik izan ez duten subjektu pasiboek izanen dute beren alde urte bakoitzaren abenduaren 31n dagoen saldoaren itzulketa eskatzeko eskubidea, urte bakoitzaren azken likidazio epeari dagokion aitorpen-likidazioan.”

“3. Artikulu honetan eta hurrengoan aipatzen diren kasuetan, Administrazioak behin-behineko

likidazioa egin beharko du zerga itzul dadila eskatzen den aitorpen-likidazioa aurkezteko epea bukatu eta sei hilabeteko epean. Hala ere, aitorpen-likidazio hori epez kanpo aurkeztu bada, sei hilabeteak aurkezpen datatik aurrera kontatuko dira.”

Zortzi. 75.5. artikulua.

“5. Artikulu honen 3. zenbakiak aipatzen duen oroharreko zenbatekoz egiteko konpentsazioa zein den erabakitzeke, zenbaki horretan adierazten diren produktu edo zerbitzuen salmenta-prezioari behean adierazten diren portzentajeak aplikatuko zaizkio:

1.a. Abeltzietatik edo oihangintzako ustiatzietatik ateratako gai naturalen eta ustiatzietatik zerbitzu osagarrien emateetan, %9.

2.a. Abeltzietatik edo arrantzako ustiatzietatik ateratako gai naturalen eta ustiatzietatik zerbitzu osagarrien emateetan, %7,5.

Prezio horiek zehazterakoan ez dira kontuan hartuko eragiketa horien zeharreko tributuak, ez eta erosleri kargatutako gastu erantsi edo osagarriak ere, hala nola komisioak, enbalajeak, portak, garraioak, aseguruak, finantza-gastuak eta abar.

Diruzko kontraprestaziorik gabe egindako eragiketetan, emandako ondasun edo zerbitzuen merkatu-balioari aplikatuko zaizkio portzentaje horiek.

Eragiketei aplikatuko zaizen portzentajea, betiere, konpentsazioa eskuratzeko eskubidea sortzen den unean indarrean dena izanen da.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Aurreko lerroaldean hori ezarri bada ere:

a) Lehen, Hirugarren, Laugarren, Bosgarren eta Seigarren atalek 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute indarra.

b) Bigarren atalean xedatutakoak 2006ko apirilaren 26tik aurrera izanen ditu ondorioak.

c) Zortzigarren idatz-zatian xedatutakoa 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ordaintzen diren konpentsazioei aplikatuko zaie.

3/2006 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko irailaren 11n egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 3/2006 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 158. artikulua, erabaki da:

1. 3/2006 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

3/2006 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 28koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 32. artikuluan xedaturikoarekin bat, Foru Komunitateari dagozkion balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatuko ditu Nafarroak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu. Eredu horiek, gutxienez ere, araubide arrunteko lurraldeko datu berak edukiko dituzte eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak adieraziko dituzte, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik sobera bereiziko ez direnak.

Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak,

54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du, Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, araubide arrunteko lurraldeko tributu araubidearen aldaketa batek unean-unean Estatuan indarra duten eta funts eta formaz berdinak diren arauak Foru Komunitatean ezartzera behartzen duenean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru legeen mailako arauak eman ahal izanena dituela.

Aseguru eta berraseguru pribatuetarako bitartekotzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legeak, zortzigarren xedapen gehigarrian, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketengatik dauden salbuespenei dagokienez. Beraz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 17 artikulua aldatu behar da.

Hori dela-eta, beharrezkoa da, esan bezala Parlamentuak esku utzirik, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu baten bidez, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 54. artikuluko 1. idatz-zatiarekin bat.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide arrunteko arauen ondorioekin bat etor daitezten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2006ko abuztuaren 28ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 117. artikulua aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 117. artikuluko 1.15 idatz-zatiak eduki hau edukiko du:

“15. Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak.

Halaber, bitartekotza zerbitzuak, bezeroak erakartzekoak barne, aurreko eragiketetan parte

hartzen duten aldeen arteko kontratua izenpe-
tzeko, zerbitzu haiek ematen dituzten enpresa-
buru edo profesionalaren izaera kontuan hartu
gabe.

Ulertuko da aurreikuspen modalitateak asegu-
ru eragiketen barruan daudela.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako
Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
an argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra
eta 2006ko uztailaren 19tik aurrera izanen ditu
ondorioak.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	